

BALIOA PROPOSAMENA

Gure produktuaren helburua jendeari bizitza erraztea da, kasu honetan, pizza bat errazago egiten lagunduko diegu. Honen bitartez jendeari denbora aurreztuko genioke, eta gainera dirua ere aurreztuko lukete.

Hasteko gure “pizzatoreak” sortzen dituen onurak aipatuko ditugu:

- Gure produktua erabiltzen baduzu pizza egiteko, zure denbora aurrezteko aukera izango duzu. Behar dituzun osagaiak makinan sartu eta botoiari eman behar diozulako soilik eta hortik zure pizza jateko prest aterako da.
- Supermerkatuko pizzak gustoko ez badituzu, gure “pizzatorearekin” zuk nahi duzun pizza egin dezakezu nahi dituzun osagaiak ezarriz. Eta zuk aukeratutakoak direnez, badakizu nongo produktuak jaten ari zaren, zure osasunarendako onuragarria den...
- Pizza bat labean egiterako orduan argindar asko kontsumitzen dela denok dakigu, eta horretarako guk gure “pizzatorea” sortzea erabaki dugu horri irtenbidea emateko. Gure produktuaren kasuan, funtzionatzeko ez du argindar beharrik baina honek bateria baten bidez funtzionatuko duenez, kargatu egin beharko duzu. Hala ere, esan beharra dago bateriak asko irauten duela eta frogatu dugunez, labeak baino gutxiago kontsumitzen du.
- Gure produktua erostea erabakitzen duzun momentuan, produktuarekin batera garantia bat emango dizugu. Honela, produktuak arazoren bat edukiz gero, gure langileek inongo kostu gabe konpondu egingo dute eta zure pizzatorea erabiltzen jarraitzeko aukera izango duzu.

Gure “pizzatoreak” hainbat arrisku murrizten ditu:

- Punta-puntako teknologiadun produktu bat denez, beste produktu batzuk ez dituzten ezaugarriak ditu. Adibidez, haurren arriskutik kanpo dagoen produktu bat da. Honekin ondorengo hau esatea nahi dugu:
- Demagun “pizzatorea” martxan dagoela eta bat-batean haur batek “pizzatoreak” ukitzen duela, lasai egon ez dagoelako inongo arriskurik erretzeko, horretarako prestatua baitagoelako metal berezi baten bidez bero hori ez delako kanpora aterako.
- Beste aukeretako bat da haurrak nahigabe pizzatorea zabaltzea eta dakizuenetz, honen barruan.

Gure produktuaren erabilera erreztasuna:

Gure produktua erosten duzun momentuan berarekin batera hainbat instrukzio ekarriko ditu. Hauek irakurtzean erraz ulertuko duzu makinaren funtzionamendua eta bestela bertan izango duzu zenbaki bat deitu ahal izateko.

GURE LOGOA:

